



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio
Publikoko eta Barneko Departamentua
Departamento de Presidencia, Igualdad,
Función Pública e Interior

Suhiltzaileen Zerbitzua
Servicio de Bomberos
Zaragozako errep., 31
Ctra. de Zaragoza, 31
31191 CORDOVILLA
Tel. 848 42 31 50
Faxa-Fax 848 42 31 65

Gaia: Honako foru dekretu honen proiektua prestatzea: Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren antolamendua, funtzionamendua eta barne araubidea arautzen dituen Foru Dekretua.

Tramitea: Aldez aurreko kontsulta

Unitate kudeatzailea: Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta horixe sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritziduten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkari handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak).

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamendu proiektuak egin aurretik planteatzen direnak.

Aurreikuspen horiek betez, **herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritzi gero, planteatutako arau proposamenaren gainean dituzten ekarpenak igor ditzakete**

helbide elektronikoa honetara:

bomberos.navarra@navarra.es

Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio
Publikoko eta Barneko Departamentua
Departamento de Presidencia, Igualdad,
Función Pública e Interior

Suhiltzaileen Zerbitzua
Servicio de Bomberos
Zaragozako errep., 31
Ctra. de Zaragoza, 31
31191 CORDOVILLA
Tel. 848 42 31 50
Faxa-Fax 848 42 31 65

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak

Suteak prebenitzeko eta itzaltzeko, eta salbamenduko zerbitzuen oinarri juridikoa Konstituzioan dago; izan ere, haren 15. artikulua adierazten du bizitzarako eta osotasun fisikorako eskubidea funtsezko eskubideetan lehena eta garrantzitsuena dela. Horretaz gain, 17. artikulua pertsonen askatasuna eta segurtasuna arautzen ditu, eta bi eskubide horiek konstituzio-bermerik handienak dituzte, botere publikoei dagokielarik horiek benetan babesteko neurri eraginkorrak hartzea; gainera, neurri horiek partikularren jarduna baldintzatu dezakete, arrisku larriak eta hondamendi nahiz zorigaitz publikoak sortzen direnean.

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako eskumenak erabiliz, Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea. Helburua zen babes zibileko eta larrialdien kudeaketaren inguruko jarduketak arautzea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, deusetan galarazi gabe interes nazionaleko larrialditzat jotzen diren egoerak arautzeko Espainiako arauak xedatzen dutena eta, halakorik izanez gero, aplikatzekoa den Europako araudiak xedatzen duena.

Arau horren IV. tituluak Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamendurako dituzten zerbitzu publikoak arautzen ditu; izan ere, zerbitzu horiek babes zibilaren eremuan dauden zerbitzu publikoetan garrantzitsuenetakoak dira eta, horrenbestez, larrialdiei aurre egiteko beharrezko bermea ere badira, denbora guztian eskura daudelako eta espezializazio handia dutelako. Legegile autonomikoak erabaki du Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legeko zenbait alderdi erregelamendu bidez arautu behar direla.

Beharrezkoa da, beraz, erregelamendu-arau bat onestea Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren antolamendua, funtzionamendua eta barne araubidea ezartzeko, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legeak eman zuen arautzeko gaitasuna erabiliz.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio
Publikoko eta Barneko Departamentua
Departamento de Presidencia, Igualdad
Función Pública e Interior

Suhiltzaileen Zerbitzua
Servicio de Bomberos
Zaragozako errep., 31
Ctra. de Zaragoza, 31
31191 CORDOVILLA
Tel. 848 42 31 50
Faxa-Fax 848 42 31 65

b) Arau onestea berarrezkoa eta egokia den

Berariazko araurik ez dagoenez gero, tresna arauemaile berariazko bat eman nahi zaio Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuari, haren funtzionamendua integratua eta koordinatua izan dadin, azken helburua delarik ziurtatzea Nafarroako Foru Komunitateko herritarren beharrei erantzun eraginkorra ematen zaiela.

c) Arauak zer helburu dituen

- Oinarrizko printzipio batzuk ezartzea Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren antolamendurako, eta bertako langileak sailkatzea.
- Zehaztea zerbitzu horren barne funtzionamenduko arauak, aginteharremanak eta jarduketa printzipioak.
- Eduki arauemailea ematea zenbait gairi; izan ere, gai horiek, gaur egun, Administrazioaren ordezkariak eta langileek sinatutako akordio batzuetan daude jasota.
- Erraztea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen araubide juridikoa ezar dakien Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko langile operatiboei, haiek dituzten berezitasunak direla eta.

d) Izan litezkeen bestelako aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak)

Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legean xedatutakoaren arabera, lortu nahi diren helburuak soilik arau bidez gauzatzen ahalko dira. Beraz, ez dira bidezkoak arauemailea ez den konponbidea edo bestelako formulen bidezko arautzea.